



ERABAKIA, 2024ko URRIAREN 1ekoa, EHU/ABIATU SARIAREN X. DEIALDIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN BIZKAIKO CAMPUSEAN UNIBERTSITATE ENPRESA BERRITZAILE ETA OINARRI TEKNOLOGIKODUNAK SORTZEKO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean UPV/EHU), Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak eta BEAZ Bizkaiak ahaleginak batu dituzte, EBko FEDER funtsen finantziadorekin, ekimenerako kultura bultzatu eta enpresa berritzaile eta oinarri teknologikodunak sortze aldera, eta, horretarako, abian jarri dute, Bizkaiko Campuseko unibertsitate haztegien bidez, Enpresen Sorreran Laguntzeko ZITEK Programa, unibertsitateko kideei zuzendutakoa (ikertzaileak, irakasleak, lizentziatuak, graduondokoak eta abar).

Zitek Portugalete

Zitek Leioa

Zitek Bilbao

Programaren **helburuak** hauek dira:

- Enpresa bihur daitezkeen proiektuak bultzatzea.
- Unibertsitateko kideen artean enpresaren kultura bultzatzea eta hedatzea.
- Unibertsitatearen ahalmen berritzailea ustiatzea enpresa berriak sortzeko.
- Gure inguruan lana beste modu batera aurkitzeko bidea erraztea, enpresa sarea dinamizatu eta berritzeko garrantzitsua baita.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA: 2024ko urriaren 27ra arte.

Agiriak helbide honetara bidali behar dira: zitek@ehu.eus

SARIAREN ERABAKIA: 2024ko azaroa



SARIAK

Enpresek lehiaketako bi modalitateetako batean hartuko dute parte (epaimahaiak erabakiko du zeinetan), hau da: **oinarri teknologikodun** enpresen alorrean, edo **enpresa berritzaileenetan**. Epaimahaiak, gutxien dela, bi sari emango ditu modalitate bakoitzean.

Gehienez ere, 20.000 euro banatuko dira saritan, eta gutxien dela 4 enpresa izango dira saritu.

Epaimahaiak nahi bezala banatuko du diru kopurua, baina proiektu bakoitzak gehien dela 6.000 euro eta gutxien dela, 2.000 euro irabazi ahal izango ditu.

ONURADUNAK

Unibertsitatean oinarria duten enpresa berritzaileak eta oinarri teknologikodunak, Bizkaian sortuak 2020ko urtarrilean hasi eta 2023eko abendura bitartean, betiere, honakoak izan badira sustatzaileak:

- UPV/EHUko edozein ziklotako ikasleak, tituludunak edo graduondoko tituludunak.
- UPV/EHUko edozein arlokotako irakasle, ikerlitzaille edo bekadunak.
- UPV/EHUrekin elkarlanean egindako ikerketaren emaitzak ustiatzeko zereginen parte hartzen duten enpresa sustatzaileak.

HAUTAGAIK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Epaimahaia EHU/ABIATU programako bazkideetako bana kidek osatuko dute (UPV/EHU, BEAZ eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIA).



Proiektuak aukeratzeko honako irizpideak erabiliko dituzte:

- 1) Enpresa proiektuaren berritasuna edo enpresaren jarduerak unibertsitateko I+G jarduerekin daukan lotura. Lehiakortasunaren edo teknologien arloan dituen abantailak, patenteak eta abar. **30 puntu**
- 2) Saria banatu arte enpresak izandako ibilbidea eta epe ertainerako aurreikuspenak. Proiektuaren bideragarritasuna. **30 puntu**
- 3) Proiektua eskalan jartzeko aukerak eta merkatuko aukerak. **30 puntu**
- 4) Proiektuaren jasangarritasuna eta gizarte eragina. **10 puntu**

ENPRESA HAUTAGAIK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- 1- Enpresako sustatzaileen zerrenda, bazkideak eta UPV/EHUrekin daukaten lotura. Enpresaren kapitalean duten parte hartzea. Langile ez diren bazkideek enpresari laguntza emateko ekintzetan duten partaidetza.
- 2- Enpresako langileen zerrenda eguneratua eta UPV/EHUrekin daukaten lotura. Langileen izendun zerrenda eguneratua (azkena).
- 3- Sozietatea eratzeko eskritura eta ondoren egindako aldaketak. Ekonomia Jardueren gaineko Zerga (EJZ) (036 eredu).
- 4- Ondorengo datuei buruzko txostena, ahalik eta zehatzena (**5 orri gehienez**):
 - 5.1. Proiektuaren sorrera.
 - 5.2. Enpresak eskaintzen dituen zerbitzu eta produktuen nondik norakoak. Berrikuntzak. I+G emaitzen transferentzia.
 - 5.3. Proiektua eskalan jartzeko aukerak eta merkatuko aukerak.
 - 5.4. Gaur egunera arte lortutako emaitzak eta etorkizunerako aurreikuspenak. Erantsi 2021ko emaitzak eta 2022rako aurreikuspenak.
 - 5.5.- Proiektuak gizartean daukan eragina eta jasangarritasunari buruzko ezaugarriak.

Gorka Moreno Márquez
UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordea